

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

2025erako Zuiako udalerrian kirolari gazteei eta desgaitasuna duten kirolariei zuzendutako dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak

Udal osoko bilkurak 2025eko martxoaren 20an egindako saioan honako hau erabaki zuen, beste batzuen artean:

– Honako arlo hauetan dirulaguntzak emateko deialdia eta dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onartzea: 2025erako Zuiako udalerrian kirolari gazteei eta desgaitasuna duten kirolariei zuzendutako laguntzak.

– Erabaki honen bidez araututako diru-laguntzak 2025eko gastuen aurrekontuko 341.481.090 partidaren kargura ordaintzea.

– Deialdi horiek ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berariazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2025eko martxoaren 31n

Alkate-udalburua

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

Zuiako udalerrian kirolari gazteei eta desgaitasuna duten kirolariei zuzendutako dirulaguntzen oinarri arautzaileak, 2025. urtea

1. Helburua eta xedea

Deialdi honek arautzen du Zuiako 24 urtetatik beherako kirolarien eta edozein motatako ezgaitasunen bat duten kirolarien artean, kasu honetan, adin mugarik gabe, laguntzak ematea, norgehiagoka araubidean, baldin eta lehiaketa ofizialetan, nazionaletan zein nazioartekoetan, nabarmendu badira kirol federatuak dakarren kostu ekonomikoa arinduz.

2. Aurrekontu-kreditua

2025eko aurrekontuan, bada 341.481.090 zenbakiko gastu-partida, 5.000,00 eurotakoa, kirolari promesen laguntzetarako, 2024/2025 denboraldian edo pareko denboraldian, kasu bakoitzeko kirol diziplinaren arabera.

3. Onuradunak

Deialdi honen bidez ematen diren dirulaguntzen onuradun izateko aukera izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

1. Kirolari ez profesionala izatea eta deialdiaren xede den denboraldirako (2024/2025 denboraldia edo 2025. urtea) indarrean dagoen federazio-lizentzia izatea. Lizentzia hori dagokion kirol-modalitateko Arabako federazioak izapidetuko du, edo Zuiako udalerrian egoitza duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan erregistratuta dagoen kirol-klub edo erakunde batek.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileek, aldi baterako eta ezinbestean, Arabako Lurralde Historikoetik kanpoko kirol-federazio batean lizentzia lortu behar badute, baldintza hori bete ezean ezingo baitute beren kirol-hobekuntza garatu, atal honetako aurreko paragrafoan ezarritako betekizunetik salbuetsi ahal izango dira, aldez aurretik justifikazio-idazkia aurkeztuta.

2. Zuiako udal-errodan izena emanda egotea, gutxienez urtebeteko antzinasunarekin, deialdia argitaratzen denetik.

Erroldatuta egoteko betebeharretik salbuetsita egongo dira genero-indarkeriaren biktimak. Eskatzaileek lehentasuna izango dute gainerakoen aldean eta ez da inola ere laguntza hainbanatuko. Horretarako, izaera hori egiaztatu beharko da kondena-epaiaren bidez, biktima babes-teko aginduaren bidez eta, salbuespen gisa, ministerio fiskalaren txostenaren bidez. Txosten horretan adieraziko da demandatzailea genero-indarkeriaren biktima dela adierazten duten zantzuak daudela babes-agindua eman arte.

3. Deialdiaren urteko abenduaren 31n, gehienez, 24 urte beteta ez izatea. Adin-mugarik gabe, desgaitasuna duten kirolarien kasuan.

4. Onuraduna izatea debekatzen duten inguruabarretako batean ere ez egotea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aurreikusita bezala.

5. Zehapen irmorik ez betetzea dopinari buruzko kirol-arloko diziplina edo administrazio arloko arau-hausteagatik, edo sexuagatik bereizkeria eragiten duten indarkeriazko ekintza eta jokabide arrazista eta xenofoboengatik.

6. Mota horretako laguntzak jaso ahal izango dituzte Arabako Foru Aldundiak 2025erako promesatzat kalifikatu dituen kirolariek, baldin eta aldi horretan izendapena jasotzeko arrazoi izan ziren kirol-jarduerari eusten badiote.

4. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskabidea Zuiako Udalaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, salbuespen gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bitartekoren bidez, honako dokumentazio honekin batera:

– Pertsonaren edo bere legezko ordezkariaren NANA, adingabea bada. Eskatzailetzat hartuko dira 14 urtetatik beherakoak edo tutoretzapean daudenak, aita, ama, tutorea, izatezko zainzailea edo ikaslearen legezko arduraduna.

– Laguntza lortuz gero, diru-sarrera egiteko banku-kontuaren zenbakia.

– Kasuan kasuko federazioaren ziurtagiria, lehiaketa ofizialetan deialdi honek bere hartan hartzen duen denbora-tartean lortutako emaitzei buruzko (I. eranskina). Dokumentu honek, halaber, desgaitasuna duen kirolariaren izaera egiaztatzeko balioko du, eta onuraduna salbuetsiko du lege honetako Deialdi honen 3.3 artikuluan ezarritako adin-muga betetzetik.

– Udalaz gain beste dirulaguntzarik baden ala ez egiaztatzen duen zinpeko aitorpena. Halakorik badago, erakundea eta zenbatekoa adieraziko dira. (II. eranskina).

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztearekin batera, eskatzaileak baimena emango dio organo eskudunari deialdian zehazten diren dokumentuak zuzenean eskuratzeko, salbu eta horretarako baimena berariaz ukatzen badu; orduan, agiri horiek aurkeztu beharko ditu. Halaber, Udalari

baimena ematen dio kasuan kasuko administrazioei eskatzeko dirulaguntzaren eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela, datu horiek beharrezkoak baitira dirulaguntza lortzeko, jasotzeko eta mantentzeko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

5. Onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntzei buruzko Legean eta gainerako arautegi aplikagarrian jasotako betebeharrak orokorrak alde batera utzita, honako hauek izango dira deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradunen betebeharrak:

– Helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk lortu izanaren berri ematea udalari, beste administrazio, organismo edo erakunde publiko batzuetatik helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk lortu diren ala ez adierazten duen zinpeko aitortpenaren bidez. Beste dirulaguntzaren bat lortuz gero, lortutako zenbatekoa eta dirulaguntza eman duen administrazioa adierazi beharko dira, eta datu horiek egiazkoak direla egiaztatzen duen egiaztatzea aurkeztu beharko da.

– Onuradunei dagokien familia-unitatea Zuiako Udalarekiko, ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

– Laguntzaren gastua zuzen eta egoki egitea, eman zen helburuetarako.

– Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze, jarraipen eta ikuskapen-jarduerak onartzea.

– Jasotako funtsak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren itzulketa arrazoiak tartean direnean.

– Laguntza honen publizitatea egitea kirolari bakoitzak eskura dituen baliabideetan.

– Udalak proposa diezazkiekeen jardueretan parte hartzea, Zuiako gizartean kirola eta bizi ohitura osasungarriekiko kontzientzia zabaltzeko.

6. Aurkezpena eta epea

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko azaroaren azken egun baliiodunean amaituko da.

7. Balioespen irizpideak

Zuiako Udalak dirulaguntzak banatuko ditu deialdi honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten kirolarien artean, dirulaguntzak emateko irizpide objektibo hauei dagokienez:

ATaldea: Nazioarteko kirolariak, zein bere federazioaren deialdiaren bidez:

A.1 Olinpiadetan, paralinpiadetan, munduko txapelketetan, Europako txapelketetan, Mediterraneoko Jokoetan edo (kirol olinpikoen elkarte / kirol objektibo paralinpikoari laguntza) beketan parte hartzea: 125 puntu.

A.2 Beste maila batzuetako txapelketa ofizialetan parte hartzea: 100 puntu.

BTaldea: Euskadi Autonomia Erkidegoko eta estatuko txapelketetako parte hartzaileak:

Atal honetan, kategoria eta neguko eta udako modalitateko txapelketa ofizialetan lortutako emaitzak baino ez dira baliozkoak izango deialdi honetarako; ez dira baliozkoak izango federazioek (unibertsitarioak, etab.) antolatutako gainerako txapelketetan lortutako emaitzak.

B.1 Norbanakoen partaidetzako espezialitateak:

B.1.1 Banakako Espainiako txapelketako dominaduna: 80 puntu.

B.1.2 Espainiako txapelketan banaka parte hartzen dutenak edo dagokion federazioak Espainiako txapelketarako autonomia-erkidegoka hautatzen dituenak: 64 puntu.

B.2 Taldekakoen partaidetzako espezialitateak:

B.2.1 Espainiako dominaduna selekzio autonomikoarekin: 80 puntu.

B.2.2 Espainiako txapelketa ofizialetan parte hartzea selekzio autonomikoarekin: 64 puntu.

B.2.3 azioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzea espainiako selekzioarekin: 100 puntu.

Kirolariek lortutako baremo handienari dagokion laguntza jasoko dute soilik, ezin batuz atal desberdinetako puntuazioak.

Gutxieneko parte-hartzerik edo aurretiatzko hautaketarik eskatzen ez duten Espainiako txapelketetan, eta 5 kirolari baino gutxiagoko parte-hartzea duten txapelketetan, ehuneko 20a gutxiago baloratu ahal izango dira.

Dirulaguntzak emateko, baremo hau aplikatuko da:

PUNTUAZIOA	ZENBATEKOA
125 puntu	1.000,00 €
100 puntu	700,00 €
80 puntu	500,00 €
64 puntu	350,00 €
51 eta 63 puntu artean	200,00 €

Deialdi honetara bideratutako kreditua ez badator bat proposatutako eskabide guztien zenbateko osoarekin, baldin eta gutxienez 51 puntu lortu badituzte (goitik edo behetik), koefiziente zuzentzaile bat aplikatu ahal izango da, formula honen arabera:

$$(a/b) \times c = d$$

Non:

a = deialdiaren kreditua.

b = baloratutako eskabide guztiei puntuazio-baremoa aplikatuz ateratzen diren kopuruen batura.

c = baloratutako eskabide bakoitzari puntuazio-baremoa aplikatuta ateratzen den kopurua.

d = eskabide bakoitzari eman beharreko zenbatekoa.

Koefiziente zuzentzaile hori aplikatu ondoren, ateratzen diren kopuruak beherantz biribildu daitezke, gertuen dagoen 5eko multiploraino.

8. Ebazteko eskumena duen organoa

Dirulaguntza emateko eskumena alkate-udalburuak izango du, dagokion informazio-batzordeak txostena egin ondoren.

9. Diruz lagun daitezkeen gastuak

Laguntza horiek bateragarriak dira administrazioek edo erakundeek helburu berarekin edo antzekoarekin eman ditzaketan beste laguntza batzuekin.

Deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako, kirol-jarduerarekin zerikusia duten guztiak joko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat: klubei ordaindutako kuotak, kirol-lizentzia, jantziak eta kirol-materiala, lehiaketa eta entrenamenduetarako joan-etorrien eta ostatuen gastuak, profesionalen zerbitzuak ematea, eta, hala badagokio, kirolariaren desgaitasunaren ondoriozko gastu espezifikokoak (protesiak, gorpil-aulkiak, etab.), betiere kirol-jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta gastua justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindu bada.

10. Justifikazioa eta ordainketa

Dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako aurrekontuak dakarren gastu osoa justifikatu beharko da.

Gastua justifikatzeko, fakturak eta pareko froga-balioa duten beste dokumentu batzuk aurkeztu beharko dira, trafiko juridikoan, merkataritzakoan edo administrazio-eraginkortasunarekin (IV. eranskina). Faktura elektronikoen bidez ere egin ahal izango da, betiere zerga-arloan onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen baditu.

Nolanahi ere, ordainketak egiaztatzeko agiriak ere aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, eskabidearekin batera eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

11. Ez-betetzea eta itzultzeko prozedura

Onuradunek dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, eta aurkeztu behar dituzten datuak eta dokumentuak faltsutu eta ezkututzen badituzte, dirulaguntza ezeztatu egingo da eta, hala badagokio, behar ez bezala ordaindutako zenbatekoak itzuli egingo dira.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako, Zuiako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)




ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

Kirolari promes eta desgaitasunik duten kirolarien subentzia - Diru laguntza eskabidea
Subvención para deportistas promesas y con discapacidad - Solicitud de subvención

Izen-deiturak/ Nombre y apellidos			NAN-AIZ / DNI-NIE	
Helbidea / Domicilio		Herria / Población		PK / CP
E-mail		Telefonoa	Zuian errolatua / Empadronamiento en Zuia Bai/ Sí Ez / No	
Banketxea / Banco	Kontu korrontearen zenbakia / Número de cuenta corriente			
Eskatu edo jaso al duzu xede berberarako bestelako laguntzarik? (jaso badira, zenbatekoa azaldu): ¿Has solicitado o recibido otras ayudas para el mismo fin? (si se han recibido, especificar importe): Bai, zehaztu zenbatekoa / Si, especificar importe Ez dut jaso edo eskatu/No he recibido ni solicitado ninguna				
Administrazio edo enpresa /Administración o empresa			Zenbatekoa / Importe	
Baimena ematen diot espresuki Zuiako Udalari sektore publikoko edozein entitatetatik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan izenburuan agertzen den diru laguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla.			Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Zuia para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la solicitud de subvención indicada en el título de este impreso.	
Bai Ez			Sí No	
*Ezezkoan, aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.			*En caso negativo se deberá aportar tal documentación.	
Diru-laguntzei buruzko azaroaren 2003 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikuluko baldintzak betetzen ditudala adierazten dut.			Declaro que cumplo los requisitos del art.13 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre de 2003	
Nire erantzukizunpean adierazten dut goian azalduetako datuak egiazkoa direla.			Declaro bajo mi responsabilidad que los datos indicados arriba son ciertos	
Aurkezten den dokumentazioa: - Eskatzailearen edo tutorearen NANA. - Eraitzen ziurtagiria, dagokion federazioak emana.			Documentación que se presenta: - Fotocopia del DNI de la persona demandante o su tutor. - Certificado de resultados emitido por la federación correspondiente.	

Sinadura / Firma

Data/ Fecha

AYUNTAMIENTO DE ZUIA MURGIA (ALAVA)		ZUIAKO UDALA MURGIA (ARABA)
Datu babesari buruzko informazioa		Información adicional protección de datos
Tratamenduaren arduraduna		Responsable del tratamiento
Identitatea: Zuiako Udala – IFZ P0107200H Helbidea: Udal plaza,1 – 01130 Murgia (Araba) Telefonoa: 945 430 005 E-mail: zuiakoudala@ayto.araba.eus Datuen Babesaren Ordezkaría: azuia.dbo@ayto.araba.eus	Identidad: Ayuntamiento de Zuia – NIF P0107200H Dirección: Plaza del ayuntamiento,1 – 01130 Murgia (Álava) Teléfono: 945 430 005 E-mail: zuiakoudala@ayto.araba.eus Delegado/a Protección de Datos: azuia.dbo@ayto.araba.eus	
Tratamenduaren xedea		Finalidad del tratamiento
Helburua: Eskatutako diru-laguntzei dagokien informazio pertsonalaren kudeaketa. Gordetzeko epeak: Subentzioen espedienteak Diru-laguntzaren deialdiko espedientearen kontserbazio iraunkorra Urte 1 ukatutako banakako espedientetarako eta 8 urte diru-laguntza onartutako espedienteetarako.	Finalidad: Gestión de la información personal relativa a la concesión de subvenciones solicitadas. Plazos de conservación: Expedientes de subvenciones Conservación permanente del expediente de convocatoria de la subvención. 1 año para expedientes individuales denegados y 8 años para expedientes concedidos.	
Legitimazioa		Legitimación
Botere publikoaren egikaritzea DBE Oren 6.1.e) artikulua 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorra 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Erregelamendua onartzen duena	Ejercicio de la potestad pública: art. 6.1.e) RGPD Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones	
Hartzaileak		Personas destinatarias
Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikagarri direnak.		Las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.
Eskubideak		Derechos
Intersdunek honako eskubide hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> Zuiako Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzenari den ala ez dioen baieztapena jasotzeko eskubidea. Haien datu pertsonaletara sarbide izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatzeko eskubidea, datuak jaso ziren beharrezkoak ez direnean. Egoera jakin batzuetan honako hauek eskatzeko: <ul style="list-style-type: none"> Datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, Zuiako Udalak erreklamazioen aurrean defendatzeko edo haiek egikaritzeko gordeko dituzolilik. Datuen tratamenduaren aurka egitea. Kasu horretan, Zuiako Udalak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta arrazoizko legítimo larriak baldin badaude edo erreklamazio posibleen defentsa edo egikaritzea badago. Banakako erabaki automatizatuetarako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere erabil dezake. Eskubide horiek Zuiako Udalaren aurrean egikaritu ahal izango dira. Helbidea: Udal plaza, 1- 01130 Murgia (Araba). Eskubideen egikaritzean behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babesarako Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsua kalea, 71 - 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz.		Las personas afectadas tienen derecho a: <ul style="list-style-type: none"> Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de Zuia está tratando sus datos personales. Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no sean necesarios para las finalidades para las cuales fueron recabados. Solicitar en determinadas circunstancias: <ul style="list-style-type: none"> La limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso sólo serán conservados para el ejercicio o la defensa de reclamaciones. La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Zuia dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas. Los derechos podrán ejercerse ante el Ayuntamiento de Zuia – C/ Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava) Si en el ejercicio de sus derechos no ha sido debidamente atendida o atendido, podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: C/ Beato Tomás de Zumárraga, 71 – 3ª planta - 01008 Vitoria-Gasteiz.
Udal plaza, 1 Murgia – ZUIA 01130 ARABA		945 430 005 http://www.zuia.eus/ azuia.general@ayto.araba.eus